



HamaiKa

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA

7. Zenb. Uztaila 2017



DEPORTIVO ALAVESEK BENETAKO JAI BAT BIZITZEN DU,
BARTZELONAREN AURKAKO PARTIDU HISTORIKOAN

KOPAKO FINAL IZUGARRIA



EUSKADIKO
16BEKO
EMAKUMEEN
SELEKZIOA
ESTATUKO
TXAPELKETAKO
TXAPELDUN
ORDEA



CLUB
DEPORTIVO
VITORIAK
BIGARREN B
MAILARA
IGOERA
HISTORIKOA
LORTU DU

El placer de desplazarse

VEHÍCULOS CON CONDUCTOR



Automóviles de alta gama



Idiomas
Servicio 24 horas

Tel.: 943 39 38 48
Donostia-San Sebastián
www.vallinagrupo.com



3	EDITORIALA
4	BATZORDE NAGUSIA
5-8	LEHEN MAILA
9	B BIGARREN MAILA
10	HIRUGARREN MAILA
11	ERREGIONALA
12-13	ESTATUKO TXAPELKETA
15-16	OINARRIZKO FUTBOLA
17-18	EMAKUMEEN FUTBOLA
19	IRITZIA
20-21	ARETO-FUTBOLA
22	BERRIAK

©:
EUSKADIKO FUTBOL
FEDERAKUNDEA
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea
Comité de Redacción
Luis María Elustondo,
Nerea Zalabarría, Kepa Allica,
Haritz Gallastegi y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación
Cantera Deportiva S.L.
Disenu eta Maketazioa
Diseño y Maquetación
Cantera Deportiva S.L.
Argazkiak. Fotografías
Federación Vasca de Fútbol
y Cantera Deportiva

HAMAIKA
Euskadiko Futbol Federakundea
Julian Gaiarre 48 bajo
48004 BILBAO
Tfnoa: 94 473 19 00
webmaster@eff-fvf.eus
Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador
Laguntzailea



Hamaika ez da bere laguntzaileen
iritziarantz erantzule egiten
Hamaika no se hace responsable
de la opinión de sus colaboradores/as

EDITORIALA

KEZKAK ETA ILUSIOAK

Denboraldi berri bat hasten da eta ikus-puntu ezberdinak aurkezten dira... Euskadiko Futbol Federakundearen identitateari buruz arduratuta gaude, Nere estatutu eta kompetentziak en dira modu egokian aplikatzen. Eusko Jaurlaritzak ezta Espainiako Futbol Federakundeak ez dituzte erakunde bakoitzari dagozkion betebeharrak dagokion moduan onartzen. Autonomi txapelketa guztiei aurre egiten diegu, maila eta kompetentzia guztietan, inolako subentziorik jaso gabe.

Gure ohizko emaitzen kontua defizitarioa da eta ez ohizko ekintzetan irabaziak ez badaude, gure fondoak gero eta murriztagoak dira era kezka-garran.

Aurkezten den baste kezka bat, klubeei ezarri nai zaizkien betebeharrak fiskalak dira, ez dato dudarik ordaindu egin behar dela, baina ogasunak egoerak aztertu eta objetibotasunek, iragana ahaztu eta etorkizuna adostuz. Edozein duda eso galdera eduki ezkeru edozein ogasunekin, laguntzeko prest agertzen gara.

Consejo Superior de Deportes-eko erreal dekretu legeak hobekuntzak ekarriko dizkio kirolari eta futbolari konkretuki, garrantzi handikoak izango direnak oinarrizko futbolarentzat eta bereziki Emakumeen Futbola eta Areto Futbolarentzat. Erabil ditzagun errekurtsu hoiek, gure gazteen formakuntzarako.

Nazioarteko mailan Euskal futbola ordezkatzeko helburuarekin tinko jarraitzen dugu, gure azken Batzar Orokorrean komentatu genuen bezala, ilusio guztiarekin.

Hamaika honetan disziplina guztiei buruzko informazio interesgarria aurkituko duzue, guztiei zuen lana eta dedikazioagatik zoriontsea besterik ez zaigu falta. Dakizuen bezala zuen esanetara gaude.

Eskerrik asko.



Pedro Solaun, Juan Luis Larrea, Iñaki Gómez Mardones, Luis Mari Elustondo, Kepa Allika eta Xabi Irusta Batzorde Nagusiaren ekitaldian

BATZORDE NAGUSIAK 2017/18RAKO OINARRIAK FINKATU DITU

Bilbon ospatutako Euskadiko Batzorde Nagusian, euskal klub maskulinoen zein femeninoen denboraldi bikaina omentzeko zorion adierazpenak aldarrikatu ziren.

Fran Rodríguez

Bilboko Itsas Museoan ospatu zen oraingo honetan, joan den ekainaren 29an, Euskadiko Futbol Federazioaren Batzorde Nagusia, zuzendaria Luis Mari Elustondo izanik, eta bertaratuak presidenteen artean Bizkaiko Iñaki Gómez Mardones, Gipuzkoako Juan Luis Larrea eta Arabako Pedro Solaun jaunen presentziarekin kontatuz. Euskadiko federazio erakundeko presidentek bereziki nabarmendu nahi izan zuen euskal futbolariek gaur egun bizi duen une bikaina, eskuratutako lorpen ezber-

dinen eskutik, horien artean bereziki aipagarriak izanik Alavés taldearen Kopako finala hala nola Errealaren eta Athletic klubaren sailkapen europarra, eta horrez gain Athletic B taldearen zein San Ignacio, Zarautz edota Euskadi kadete femeninoen jarduerak bikaina.

Batzordean zehar, zeinetan 2016ko ekitaldiko eta 2017 hone-

tako kontuak hala nola aurreikusitako kirol txapelketetako plana onartuko ziren, aurrera egitea eta lanean jarraitzea erabaki zen, Euskadiko Futbol Federazioaren eta bere selekzioen nazioarteko ofizialtasuna lortzearen aldeko batzordeak eratuz eta horrela haiek bai FIFA erakundean eta bai UEFA txapelketan zuzenean integratzea bilatuz.



ASTORE



DEPORTIVO ALAVES FUTBOL TALDEA FESTA GIRO BIKAINEAN MURGILDUTA DABIL BERE LEHENENGO ERREGE KOPAREN FINALAREKIN

Arabako hogeita bost mila zale bertaratu ziren Madrilera babazorroen historiako lehenengo Errege Koparen finala bizitzera.

A. Marcos

Deportivo Alaves taldeak ametsetako denboraldi itzela garatu du estatuko futbolaren elitara itzuli zenetik. Babazorroek erabateko iraultzaren aldeko apustua egin zuten eta amaiera emaitza bikaina izan da. Sergio Fernandezek kirol zuzendaritza bere gain hartu zuen, langile-taldea ia bere osotasunean berritzeari ekinez eta zuzendaritza teknikoaren agintea bete-

tzeko Mauricio Pellegrino hautatuz, izan ere, honek gazteez gainezka dagoen taldearen errendimendurik handiena ateratzen jakin izan du. Mendizorroztakoek erakutsi dute bloke oso lehiakorra osatzen dutela, eta horrek ahalbidetu egin die iraunkortasunaren helburua erraz lortzea eta, iragarpen mota ororen kontra, lehenengo Errege Koparen finala irabaztea. Arabako zaleek, lehenengo hitzordu historiko honetan huts egin ezin zuten, denak batera lekualdatu ziren Madrilera, bertan euren zoriona barreiatzera, bai kaletan eta bai Vicente Calderon estadioan. Pellegrinoren jokalariek aurre egin zioten FC Barcelona taldeari, baina Leo Messiren magia erabakigarria izan zen joko-eremuan gasteitzaren itxaropenekin amaitzeko orduan, ez ordea harmailetan, haietan txapeldunak izan baitziren.

LUIS ZUBELDIA IZANGO DA HURRENGO DENBORALDIKO TEKNIKARIA

Familiako arrazoiak direla eta jadanik iragarritako zegoen Mauricio Pellegrinoren erretiroa gauzatu ostean, aulkian hura ordeztuko hautatua Medellinoko Independentetik datorren Luis Zubeldía teknikari argentinarra izan da. Zubeldiak 2008an egin zuen debuta, Lanus taldearen entrenatzaile bezala, 27 urte zituenean, horrela Argentinako Lehen Mailako historiako entrenatzailerik gazteena bihurtuz. Orduz geroztik, Barcelona Sporting Club, Avellanedako Racing Club, Quitoko Liga eta Santos Laguna zuzendu izan ditu. Entrenatzaile berriarekin batera halaber fitxaketa kopuru handia helduko da, izan ere, futbolari ugari dira Alaves taldearekin euren mailegu epea jadanik amaitu ostean euren jatorrizko taldetara itzuliko direnak.

ATHLETIC CLUB TALDEA, EUROPAN ERREPIKATZEKO ALDEZ AURREKO BI PARTIDU IRABAZTERA

Deportivo Alaves taldeak Errege Koparen finalean galdu izanak ahalbidetu egin du zuri-gorriak Europa League txapelketara sartzea. Hori baino lehen, alde zurreko faseko bi partidu irabazi beharko dituzte.

A. Marcos

Athletic Club taldea Europa League txapelketan lehiatu ahal izango da segidako laugarren aldiz, horretarako alde zurreko faseko bi partidu irabaztea ezinbestekoa izanik eta

horren ondorioz lehoiek aurre-denboraldiaren hasiera aurreratu egin beharko dute. Kanpaina berri honetan azpimarragarria da Kuko Zigandak lehenengo taldearen aulkian egingo duen debuta, eta bertan Bingen Arostegiuren laguntzarekin kontatzea, bigarren teknikariaren zereginetan; Imanol Etxeberria atezainak entrenatzeaz arduratuko da eta Iban Urkiza berriz, prestatzaile fisikoa izango da, guztiak ere Bilbao Athletic klubekoak izanik. Filialetik halaber bi jokalaririk igoko dira aurre-denboraldia garatzeko, alegia Iñigo Córdoba hegaleko ezkerria eta Unai Núñez zentral eskuina. Horiekin batera jardunean



GAIZKA GARITANOK ZIGANDA ORDEZTUKO DU FILIALEAN

Entrenatzaile deriotarra hautatua izan da Ziganda ordeztko filial zuri-gorria zuzentzeko orduan, Eibar, Valladolid eta Deportivo A Coruña taldeekin jardun ostean.

arituko da halaber Asier Villalibre aurrelari zentroa, zeinek denboraldi hau CD Numancia taldean 123 Liga jokatzen amaituko zuen, emandako jokalariren legez.



A vintage black and white photograph of the Athletic Club team from the early 20th century. The team consists of 14 players and one manager, arranged in two rows. They are wearing white jerseys with blue accents and dark shorts. A goalpost is visible in the background.

AVEXA
OBRAS Y SERVICIOS. S.L.

**Lavado, planchado
y repasado
de ropa deportiva
Desde 1970**

SD EIBAR TALDEAK BERE ELITEKO HISTORIAN DENBORALDIRIK ONENA OSATU DU

Jose Luis Mendilibarren jokalariek Liga erregularra hamaikagarren postuan amaitu zuten, txapelketako seigarren talderik ekintzaileena izanik.

A. Marcos



Eibar taldea estatuko mailarik gorenean finkatu da, bere denboraldirik onena Ligako hamargarren postu txaloga-riarekin izenpetuz eta utzi dituen

sentipenak oso onak izanik. Ez alferrik, armeroen taldea izan da txapelketako seigarren talderik ekintzaileena, lortutako golak guztira 56 izanik. Mendilibarren jokalariek

GOROSTIZAREN ERABATEKO GARAIPENA HAUTESKUNDETAN

SD Eibar taldearen historiako lehenengo hauteskundeak Amaia Gorostizaren garaipen irmoarekin amaitu ziren, horrela talde armeroaren aurrean bere agintea luzatzea lortuz. Igorritako 23.219 akziotatik, agintari eibartarrak % 77,43a metatu zuen, gainerako portzentajeak German Albisteguireren % 22,14a eta John Sagerren % 2,57a izanik.

iraunkortasunaren helburua lortu zuten aurrerapen nabarmenarekin eta azken unera arte lehiatzen aritu dira Europa League txapelketara sartzeko postuak bilatu nahian.

AYESTARAN

JOYERÍA AYESTARAN CON EL DEPORTE EUSKALDUN

DONOSTIÁN

31 DE AGOSTO, 16
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17
Tf.: 943 420 919

ERREALA EUROPA LEAGUE TXAPELKETARA ITZULI DA ATE NAGUSITIK

Futbolari donostiarrak zuzenean sartu dira Europa League txapelketako taldeen faseran, Ligako txapelketa amaitu ostean, seigarren postu distiratsu baten eskutik.



A. Marcos


Errealak berriro partaidea izango da txapelketa europarrean, bi denboraldi agertu gabe eman ostean. Donostiarrak Champions League txapelketa

12/13an lehiatu zuten eta Europa League txapelketaren aldeko aurreko fasea beiriz, 13/14an, aukera bietan aulkian Jagoba Arrasaterekin kontatuz. 14/15ean David Moyes arduratu zen errelebuaz, hasiera kaxkar baten ondorioz, azkenean 12. pos-

ANOETAREN BIRMOLDAKETA ABIAN DA

Arreforma obrak joan den maiatzaren 23an jarri ziren abian eta 2019ko urrian amaitzea aurreikusten da. Obra, 47 milioi eurotako aurrekontu batekin, funtsean egungo atletismo pista ezabatzean oinarrituko da, horrela aforoa hedatzea ahalbidetzeko, aurreko 32.000tik 42.000 ikusle hartzeko edukiera izatera helduz.

tuan amaitzea lortuz. 15/16aren erdialdean Eusebio Sacristán izan zen agintea bere gain hartu zuena, azkenean 9. postuan amaituz eta 16/17an 6. postura heltzea lortuz.



Excursiones y Viajes
Grupos
Empresas
Autobuses
Coches de Lujo



BOST TALDE EUSKALDUN LEHENENGO HAMARREN ARTEAN SAILKATU DIRA 2. B KATEGORIAN, BAINA BI HIRUGARRENERA JAITSI DIRA

Euskadiko hamar ordezkarietako bakar bat ere ez zen lehiatu play off kategorian, baina erdia eremu noblean geratu zen. Zoritxarrez, horietako bi kategoriaz jaitsi egin ziren.

David Novo

Urrats txiki bat falta izan zitzaion ematea euskal futbolari denboraldi hain zorrotz honetan. Gure ordezkarietako bakar bat ere ez da lehiatu izan igoera fasean baina Leioa Errege Kopa lehiatzeko sailkatu zen; aldi berean, Real Union, Bilbao Athletic, Arenas eta Real Sociedad B taldeek ere Liga lehenengo hamar taldeen artean amaitu zuten. Gernika, Barakaldo



eta Amorebieta taldeek euren iraunkortasuna bermatu zuten azkeneko jardunaldietan. Sestao River eta Zamudio taldeak, zoritxarrez, kategoriaz jaitsi egin ziren eta datorren denboraldian Hirugarrenean lehiatuko dira.

LEIOA: BERE HISTORIAKO DENBORALDIRIK ONENA

Sarrirenaren taldeak, B Bigarrenean soilik hiru kanpaina metatzea lortu eta iaz jaitsierako play out txapelketa lehiatu ondoren salbatu ostean, 2016/17 denboraldi honetan bere historiako sailkapenik onena izenpetu zuen. Liga erdia baino gehiago lehenengo lau postuen artean eman ostean, azkenean bosgarren postuarekin amaitu zuen.

BILBAO ATHLETIC ETA SANSE, 3 FILIALETAKO BI

Bilbao Athletic eta Real Sociedad B izan dira II Multzoko hiru filialetako bi zeinetan igoera fasea lehiatzeko sailkatutako lau taldeak lehenengo txandan galtzaile suertatuko ziren; baina Albacete, txapeliduna izanik, bigarren aukeran hautatua izan zen. Real Madrid Castilla izan zen multzo honetako beste 'B' talde bat.

 Sport·designer


 grupo-campus

OFERTA LANZAMIENTO
19,50 €

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en euskera y castellano.

Más información: www.sport-designer.com



ALAVES B TALDEA LIGAKO TXAPELDUNA IZAN DA LEHENENGO ALDIZ, BERE LEHENENGO TALDEAK JADANIK 6 ALDITAN LORTU IZAN ONDOREN

Alaves B taldeak, titulua eskuratzeko izangai ospetsuenetako bat izanik, iragarpenak bete zituen eta Hirugarren mailako euskal taldeko txapelduna aldarrikatu zen, final larri baten ondoren.

David Novo

Alaves B taldea nagusitu zen Vitoria, Cultural de Durango, Beasain, Portugalete eta Bermeo taldeen aurrean, titulua eskuratzeko karreran eta euskal multzoko txapelduna aldarrikatu zen bere historian lehenengo aldiz. Kanpainan zehar, aldizka, gogoko nagusien arteko diferentziak agerikoak izan arren, azken bi jardunaldietan lehiatzera heltzea

lortu zen amaiera larri baten eskutik, zeinetan lehenengo bostak saria eskuratzeko edo bestela igoera sustapenetik kanpo geratzeko egoeran aurkituko ziren. Bitxia izan arren, lehenengo txandaren ondorengo lehenengo sei postuak errepikatu egin ziren, protagonista berdinekin eta txapelketa amaierako hurrenkeraren berdinarekin. Ageriko berdintasuna izan zen ezaugarri bereizleena Liga batean zeinetan zazpigarren sailkatua ere urduri ibiliko zen, B Bigarren mailatik euskal taldeen jaitzierak eragindako arraste ugarien aukerak kontuan hartuta. Azkenean bi erori ziren (Zamudio eta Sestao) eta horrek eragin zuen Tolosa eta Santutxu ezinbestean Erreionalera arrastatu behar izatea. Halaber kategoria zuzenean galdu zuten, Ondarroako Aurrera, Zalla eta Pasaia taldeek.



Alavés B



Vitoria



Cultural de Durango



Beasain

CD VITORIA BIGARREN B-RA IGO DA PLAY OFF TXAPELKETAN

CD Vitoria taldearen jarduna historikoa gertatu zen Bigarren B Mailara igotzeko play off txapelketetan, alegia azkeneko txandan Atlético Astorga taldea kanporatzea lortu zuenean. SD Eibar taldearen filiala, horrenbestez, lehenengo aldiz brontzezko kategorian lehiatuko da, bere kirol proiektuaren sendotasuna bermatuz. Gasteiztarrek etxean irabazi egin zuten 1-0 emaitzarekin eta kanpoan galdu, 2-1 emaitzarekin. Kanpoan lortutako golen balio bikoitza erabakigarria izan zen. Aldez aurreko bi fasetan CA Cirbonero eta CD Azuaga kanporatzea lortu zuten, hurrenez hurren. Bere igoerarekin, Santutxu ez da erreionalera jaitziko.

ALAVÉS B ETA BEASAIN TALDEAK FINALERA HELDU DIRA

Beste bi talde euskaldun, igoeraren atarian geratu ziren play off txapelketetako amaiera txandan kanporatuak izan ostean, hurrenez hurren Ontinyent CF eta Sporting de Gijón B taldeen kontra lehiatu ondoren. Aldez aurretik, ligako txapeldunek bi txanda gainditu zituzten Cristo Atlético eta SD Formentera taldeen kontra. Bestalde, bagoneroek Cacereño eta Lorca B taldeen kontra irabazi egin zuten.

DURANGOKO CULTURAL TALDEA ERORI EGIN DA LEHENENGO KANPORAKETAN

Tabirakoak ez ziren gai izan Écija Balompié taldeari irabazteko.

GASTEIZKO AURRERA, SOMORROSTRO ETA ANAITASUNA, TXAPELDUN ERREGIONALAK

Gasteizko Aurrera (Araba), Somorrostro (Bizkaia) eta Anaitasuna (Gipuzkoa), Hirugarren Mailan lehiatuko diren euren lurralde txapelketetako garaileak.

David Novo

Gasteizko Aurrera, Arabako maila erregionaleko garaile bezala; Somorrostro, bizkaitarreko garaile bezala; eta Anaitasuna, gipuzkoarreko garaile bezala, kategoria nazionalera heldu dira eta datorren denboraldian Hirugarren Mailako euskal multzoan lehiatuko dira. Hiru talde horiek hartuko dute, ondorioz, aurreko denboraldiko elite erregionalean lehenengo postuetan sailkatutako Amurrio, Sodupe eta Tolosa taldeen erreleboa, eta Pasaia, Zalla hala nola Ondarroako Aurrera taldeek euren jaitsierekin utzitako postu hutsak beteko dituzte.

Gasteizko Aurrera maila nazionalera itzuli da kategoria galdu eta denboraldi bat geroago. Arabarrak halaber euren lurralde kategoriako menderatzaile nagusienak izan ziren, urte osoan partidu bakarra galdu eta Ariznabarra txapelkunordearekiko 10 puntuko abantaila lortu ondoren.

Bestalde, talde meatzaria lehenengo aldiz bere historian Bizkaiko lurraldeko saria eskuratzera heldu zen, 10 puntuko abantailarekin, San Pedro bigarren sailkatuari dagokionez, eta Hirugarren Mailan estreinatuko da.

Anaitasuna taldeak, bestalde, bere txapelketa bermatu zuen, Liga zirrargarri bateko azkeneko jardunaldian, Hernani taldearekin buruz buruko partidu hunkigarri bat lehiatu ondoren. Azkoitiakoek Zubipe taldearekiko puntu bat gehiago-rekin amaitu zuten.



Gasteizko Aurrera (Araba)



Somorrostro (Bizkaia)



Anaitasuna (Gipuzkoa)

EUSKADI SUB'16 TALDEA, IRUÑA DE OCAN (ARABA) OSPATUTAKO ESTATUKO TXAPELKETA FEMENINOAREN TITULUA LORTZEAR

Sub'16 kategoriako txapelketa ordea bezain aipagarria da Euskadi sub'18 kategoriaren jarduera bikaina, zein selekzio autonomikoen estatuko bigarren fasean kanporatua izango zen.

Txemi García

Euskadi sub'16 kategoriak estatal autonomikoan izandako bere partaidetza bikaina amaitu zuen, txapeldun ordea izatera helduz. Mikel Bengoak zuzendutako jokalaria Finalean neurtu ziren, joan den ekainaren 11n, Kataluniako taldearekin, azken honen ahalmen itzelak emaitzan islatzera helduz (3-0). Hiru kolorekoa, Iruña de Oca udalerriko Arrate joko-eremuko norgehiagoka erabakigarria heldu zen, amaierako 2-2 emaitzaren era-

ginez Madrilgo taldea penaltietan kanporatu ostean. Txikiak joan den abenduan jarri ziren abian Extremadura (1-1) eta Canarias (2-0) taldeen kontra lau puntu lortzean, Zubietako instalaziotan lehiatutako lehenengo fasean. Eta bere hobekuntza Lezaman hedatu zen, otsailean, amaiera fasearen bila. Navarra (3-2) taldeari irabazi zioten eta Galicia (4-0) taldeari gol kopuru handia sartu zioten. Mikel Bengoa bere entrenatzaileak azpimarratzen du: "Harro nago neskegatik, taldearengatik eta federazioagatik. Urtea ia perfektua izan da eta egin dutenari dagokion merezimendua eman behar zio". Eta eranstean du: "Hurrengo denboraldiari ahalik eta ilusio handienarekin ekingo diogu. Etorkizun guztia dute aurretik eta urrun iristeko kalitatea ere bai".

Sub'18 kategorian, Jon Kepa Gonzalez taldea titulua eskuratzeko borrokaren atarian geratu zen. Hasiara oparoa izan zen Extremadura (2-0) eta



Canarias (0-3) taldeen kontra lortutako bi garaipenekin, baina bigarren faseko Navarra (1-2) taldearen kontrako porrota oztupo bat izan zen, Galicia (1-2) taldeari irabaztea lortu izan arren. Txapelketa honetan, Madril gailendu egin zitzaion Cataluña taldeari (1-0) diferentzia minimoarekin, Alcobendasen lehiatutako Finalean.



EGOITZA BIKAINA

Amaiera fasearen aurkezpena bertaratu ziren Jose Javier Martínez Iruña de Oca udalerriko alkatea, Jose Javier Martínez Euskadiko Federazioko presidentea, Luis M^a Elustondo Arabako Federazioko presidentea, Pedro M^a Solaun Arabako Federazioko Presidentea eta Javier Lopez C.D. Nancloreseko Presidentea.

SUB'12 KONBINATU FEMENINOA KANPORATUA LAURDENETAN

Nekane Quiñonesa entrenatzailearen sub'12 kategoriako Euskadiko selekzio femeninoak estatu mailako txapelketa bikaina osatu zuen eta final laurdenetan erori zen Asturiaseko konbinatuaren kontra (1-2). Aldez aurreko fasean, zein halaber Guadarraman ospatuko zen, Galicia (1-0) eta Castilla La Mancha (4-0) taldeen kontra irabazi egin zuten eta Islas Baleares (0-1) taldearen kontra galdu, multzoko txapeldunak aldarrikatuz.



13 #EMAKUMEEN FUTBOLA



**Eventos
con garantía de éxito**

HGB

HOTELGRANBILBAO



El Hotel Gran Bilbao es el único hotel que dispone de palacio de congresos además de 1,800 metros cuadrados de salones para eventos.

Es un espacio idóneo para organizar eventos de empresa, convenciones, formaciones y presentaciones de producto.

El hotel ofrece apoyo integral a la gestión del evento y gran variedad de menús para banquetes y coffee breaks.

- El hotel está situado a escasos pasos del casco viejo,
- tiene muy fácil acceso para llegar en coche
- y ofrece parking gratuito para los asistentes.

Compatibles contigo



Cápsulas compatibles con cafeteras Nespresso®*



Cápsulas compatibles con cafeteras Nescafé® Dolce Gusto®*

BAQUÉ

• C a f é •

*Marcas de una compañía no relacionada con CAFÉS BAQUÉ S.L.U. Reconocimiento y marcas de logo comercial.

EUSKADIKO SELEKZIOAK ERORI EGIN DIRA ESTATUKO TXAPELKETAREN BIGARREN FASEAN

SUB-12 LAURDENETARA

Kimuek final laurden-
etara heltzea lortu
zuten.

*Hiru kolorekoaren
konbinatuetan lehenengo
faseko emaitzak nagusitu ziren,
baina minimotik maximorantz
garatuz joan ziren, amaiera
sentipenak onak izanik.*

Raúl A. Collantes

Euskadik ez zuen zorte handirik izan bere selekzio ezberdinek 2016-17 denboraldian lehiatu zituzten estatu mailako txapelketetan. Bereziki torneo horietako lehenengo fasean, zein joan den abenduan ospatuko zen, bat-batean bigarren fasetik kanpoan geratzeko zorian suertatzeko moduko emaitza batzuen eraginez.

Sub-18 kategoriakoak euren bi partiduetan Aragon eta Asturias taldeekin neurtzean galtzaile aldarrikatu ziren, inolako aukerarik gabe geratuz. Hurrengo fasean, otsailaren amaieran, jubenilak kiroltasunez lehiatzen jarraitzeko asmoz bertaratu ziren eta lau puntu lortu zituzten Cantabria eta La Rioja taldeekin neurtzean lortutako berdinketa baten eta garaipen baten eskutik. Sub-16 konbinatuak, bestalde, bi berdinketa lortu zituen lehenengo fasean. Mirari baten beharra zuten eta hiru garrenen emaitzak zaintzea zegokien, bigarren txandaren ondoren aurrera jarraitzeko. Ez zuten zorterik izan, baina ikuskizun bikaina eman zuten euren bi partiduak irabaztea lortuz, kantabriarren eta errioxarren kontra.

Denboraldi honetan, kimuen Selektzioak agerian jarri du euskal futboleko talentu berriek aurrerapausoak ematen jarraitzen dutela. Sub-12 kategoriak Estatu mailako taldeen fasea gainditzea lortu zuen, laurdenetarako sailkatuz Navarra taldearen kontra galdu ondoren.



Jubenil



Kadete



Kimua

SANTUTXU ETA OLARIZU, EUSKADIKO KOPAKO TXAPELDUNAK

2016-17 denboraldia Euskadiko Kopako finalekin amaitu zen, bere jubenil eta kadete kategorietan. Santutxu eta Olarizu izan dira bi talde garaileak.

Raúl A. Collantes

Santutxu, jubenil kategorian, eta Olarizu kadeteen, izan dira 2016-17 denboraldiko Euskadiko Koparen tituluak eskuratu dituzten bi taldeak.

Santutxu gailendu zen joan den 2015-16 edizioko Eibar txapelduaren kontra, Maionan lehiatutako final hunkigarri batean. Titulua luzapen batean erabaki zen. Bilbotarrak kornerraren eskutik aurreratu egin ziren bana bigarren atalean talde armeroa nagusitu zen, amaiera tartean garaile izateko eta epaia emateko aukerak bereganatu. Bazirudien gipuzkoarrek titulua errepikatuko zutela, baina deskontuaren epean Santutxu taldeak berdinketa lortu zuen baloi geratuarekin, horrela denbora estra derrigortuz. Luzapena jadanik bere azken txapan zegoenean, talde bilbotarraren behin-behineko 3-2 emaitza iritsi zen, horrela titulua eskuratzea lortuz.

Kadete kategorian ere ez zen lortu araudiaren araberako epean titulua eskuratzea. Olarizu eta Antiguoko taldeek zero emaitzaren berdinketarekin amaitu zuten partidua zeinetan euren indarrak saria aldarrikatzeko asmoari jarraiki neurtuko zituzten. Talde biak penaltietara heldu behar izan ziren garailea erabakitzeko. Azkenik, hamaika metrotik eginiko jaurtiketen ondoren, Olarizu garaile aldarrikatu zen.



HERNANI ETA ARENAS OHOREZKO JUBENILERA IGO DIRA

Hernani eta Arenas taldeak datorren denboraldian kategorია jubenil berean lehiatuko dira. Talde biek horrela konpentsatuta ikusi dituzte, Ohorezko jubenil kategoriako bi plazen bidez, 2016-17 denboraldian garatutako euren jarduera bikainak. Hala ere, Liga Nazional jubenilean Athletic Club B taldea izan zen podiumeko lehenengo postua bereganatzea lortu zuena. Kategoría horretan, bestalde, datorren urtean lurralde bakoitzeko talde bat lehiatuko da. Leioa, Euskal Liga Jubenileko txapeldu bezala lehiatuko da. Eta bizkaitarrekin batera lehiatuko dira Gipuzkoako Tolosa eta Arabako Alaves B taldea. Euskal Liga Kadeteen Errealak errelebua hartu zion Athletic Klubari, kategoriako txapeldua aldarrikatzean. Donostiarrek Liga bilbotarren aurretik amaitu zuten, hiru puntu gehiago eskuratzean.



El equipo del Karla Lekuona peleó hasta el final por la permanencia

ZORIGAITOKO KOPA ATHLETIC ETA REAL SOCIEDAD TALDEENTZAT

Talde biak erori egin ziren Erreginaren Koparen final laurdenetan. Txuriurdinak Bartzelonarekin neurtu ziren laurdenetan, norgehiagokaren luzapenean amore emanez, minimoaren arabera (1-0). K.O. torneoko zorte txarra mantendu egin zen lehoientzat, galdu egin zutenek Valencia (3-1) taldearen kontra, lehenengo tantoa berdindu ostean.

OIARTZUN EZIN IZAN DA LEHENENGOAN MANTENDU URTE ZAIL BATEAN

Oiartzun, Erreal eta Athletic ilustririk handienarekin jarri ziren abian Lehen Mailako denboraldian, baina emaitzak ez dira onak izan.

Txemi García

Lehen Mailako gure hiru taldeen denboraldiak itzal gehiago utzi dizkigu argiak baino. Oiartzun taldeak urteari ekin zion jadanik bere igoeraren ondoren erabakitako iraunkortasuna mantentzeko helburuarekin. Gari Argoterren jokalariek hasiera konplexu bat jasan zuten, izan ere, hamaseigarren jardunaldira arte itxaron behar izan zuten euren lehenengo garaipena lortzeko, aurretik bost puntu lortu izan ondoren. Garaipenak indarra eman zion taldeari eta bi garaipen gehiago erantsi zituen hiru astetan. Baina hamaika norgehiagoketan

lortutako garaipen batek behartu egin zituen gipuzkoarrak azken jardunaldian iraunkortasuna lehiaztera, hura euren esku egon ez izan arren. Bestalde, Errealak Erreginaren Koparako sailkatzeko helburua errepikatu zuen. Txuriurdinak zortzigarren postuan sailkatu ziren, euren goi maila agerikoa izanik, Liga gero eta zorrotzago batean. Bien bitartean, Athletic taldearen kanpaina garratzagoa



izan zen 2015/2016an bere bosgarren Liga bereganatu eta gero. Lehoiak partaide izan ziren Champions League txapelketan zeinetan Fortuna Hjørring daniarrak hamaseirenetan kanporatu egingo zituen. Erregulartasunaren txapelketan, zurigorriak atzeratuak izan ziren taulan bosgarren posturaino, zuzeneko norgehiagoka ezberdinetan amore eman zutelako.

BI EUSKALDUNEK ARBITRATUKO DUTE 1. MAILA

Euskadiko Batzordeko Beatriz Arregui Gamir eta Olatz Rivera Olmedo jadanik Lehen Mailako arbitro-taldeko kideak izendatuak izan dira datorren 2017/18 denboraldirako, probak gainditu ondoren.

ATHLETIC B ETA SAN IGNACIO TALDEEN LIGA IKUSGARRIA BIGARREN MAILAN

Bederatzi klub euskaldun lehiatu ziren Bigarren Mailako II. Multzoaren edizio honetan. Guztion aldetik esfortzurik gorenena eskatu zuen lehia gogor eta parekatua izan da.

Txemi García

Athletic B eta San Ignacio taldeak urte ahantzi ezina eskaini ziguten. Filialak Liga nagusitasunez amaitu zuen. Bi berdinketa eta bi porrot baino ez zituen



PAULDARREK KOPA ERAMAN ZUTEN

Barakaldoko taldeak Bustekabea ekarri zuen Euskal Koparen Finalean Athletic B taldeari irabazi zionean. Tokiko jokalaria garai-le aldarrikatu ziren (1-0) 6. minutuan lortutako tantoa kas-tarekin defendatzen jakinez.

jasan izan 26 jardunalditan. Bestalde, San Ignacio txapelkunordea aldarrikatu zen igoera play off txapelketa historiko baterako sailkatzea lortuz. Sevilla bere bidean gurutzatu zen eta kanporatu egin zuen, baina bilbotarrek amaiera arte aurpegia eman zuten. Berri txarra Mariño eta Arratia taldeen jaitsierekin etorri zen, Añorga, Eibar, Aurrera Vitoria, Gasteizko Neskak eta Pauldarrak taldeek iraunkortasunaren helburua lortu zuten bitartean.

ZARAUTZ EUSKAL LIGAKO TXAPELDUN BERRIA IZANIK NAZIONALERA IGO DA

Astiko jokalariek ordeztuko dituzte Gasteizko Neskak kanpaina parekatu batean, zeinetan Bigarren Mailatik eginiko arrasteek Ariznabarra eta Aurrera B taldeak eragingo zituen.

Txemi García

Kanpaina zirrargarria eta nerbioak Euskal Ligaren amaiera arte, bai igoera plaza eta bai iraunkortasuna lortzeko borrokan. Zarautz txapel-duna aldarrikatu zen Bizkerre eta Oiartzun B taldeen kontrako



norgehiagoka zirrargarri batean nagusitzean, izan ere, liga txapelketaren azkeneko jardunaldira arte ez zen inolako ebazpenik lortu. Astikoak Bigarren Mailara igo ziren, getxotarren aurrean eginiko goal-average bereziari esker, talde biak 71 punturekin berdinduta amaitu ostean. Lorpen itzela itsasertzeko talde batentzat, azkeneko Ligan laugarren postuan amaitu ondoren, lehenengo postutik oso urrun, haren hobekuntza agerikoa izanik. Lehenengo postuaren aldeko norgehiagoka gogorra izan bazen, berdina gertatu zen kategoria salbatzeko orduan. Txapelketaren berdintasunak bere isla izan zuen Euskal Ligako sailkapenaren behealdean, zeinetan arrasteak talde askotarako losa bat gertatuko ziren.

Azkenean, Ariznabarra eta B Gasteizko Aurrera taldeak kalte-tuak gertatu ziren Mariño eta Arratia taldeek Bigarren Mailatik jasandako jaitsieren ondorioz. Aldiz, Ugao eta Berriotxoak taldeak taulatik irten egin ziren Erre-gionalera itzultzeko.

URREZKO AROAREN AMAIERA

Euskal futbolean erreferente izan diren jokalariek erretiroa hartu dute. Athleticen Iraia Iturregik, Irune Muruak, Eli Ibarrek eta Maite Lizasok utziko dute. Realean, berriz, Aintzane Encinasek eta Maialen Zelaiak.



Haritz Gallastegi

Ezer ez da betirako. Ez bizitzan, ez eta futbolean. Gauzak hasi eta amaitu egiten dira. Ez dago besterik. Baina amaitu berri den denboraldia berezia da. Euskal futbolearen arrastoa utzi duten zenbait futbolari agur esatea erabaki dute. Futboleko botei atsedena emateko unea iritsi da. Pisu handiko jokalariek dira. Lorpen handiak eskuratzeaz gain, emakumezkoen futbolaren hazkundera ekarpen handia egin dutenak, hain zuzen ere. Eli Ibarrek, Iraia Iturregik, Irune Muruak, Maite Lizasok, Aintzane Encinasek eta Maialen Zelaiak harmailatik jarraituko dute aurrerantzean euskal futbolaren ibilbidea. Euren taldeetan historia egiteaz gain, Euskal Selektzioan ere makina bat aldiz erakutsi dute euren balioa.

Athletic da Espainiako Ligan txapelketa gehien irabazi duen taldea. Bost guztira. Halaber, talde zuri-gorria da partida batean jarraitzaile gehien elkartu dituen -35.000 lagun batu ziren San Mamesen lehiaketa azken partida ikusi eta Superliga bat ospatzeko-. Bada, lorpen guzti horietan Eli Ibarra protagonista izan da. Hegaleko ezker finak talde zuri-gorriak goiko mailan jokatu dituen hamabost denboraldietan

hartu du parte. Elastiko zuri-gorriarekin norgehiagoka gehien jokatu dituen futbolari da. Azken sasoiak lesioak direla medio ez du jarraikortasunik izan eta futbola lagatzea erabaki du. Lau aldiz ordezkatu du Euskal Selektzioa.

Iraia Iturregiren kirol ibilbideak antzekotasun handiak ditu Ibarrenarekin. Elkarrekin egin zuten debuta goiko mailan, baina Iturregik urtebetez Estatu Batuetan aritzea erabaki zuen. Florida Stateko unibertsitatean denboraldi bat jokatu ostean bueltatu zen etxera. Karisma handiko futbolaria izan da. Emakumezkoen futbola zelaietatik kanpora zabaltzen lagundu du. Eskuin hegalean makina bat kilometro egin ostean eta oraindik indartsu dagoela erakutsi arren gazteei lekukoa eman die -bost neurketa jokatu ditu Selektzioarekin-. Irune Muruak ere ia bizitza osoa egin du Lezaman. Erdiko aurrelariak ez du bere taldekideen pisua izan Athleticen, baina lorpen garrantzitsu guztietan lagungarri izan da. Ehun gol baino gehiago sartu ditu elastiko zuri-gorriarekin. Bada zerbait. Bi aldiz jokatu du Selektzioarekin.

Athleticek iaz lortu zuen azken Liga. Bada, ordurako elastiko zuri-gorria defendatzen ari zen Maite Lizaso. Euskarri zarautzitarra Realeko zutabe izan zen hamarkada batean zehar. Nortasun handiko jokalaria izan da. Sekula

kikildu ez dena. Bada, azken hiru urteak A8 autobidearen beste aldean eman ditu. Bere kirol ibilbide bikainak merezi zuen garai-pena lortuta erretiroa hartzeko momentua dela erabaki du. Euskal Selektzioaren elastikoa gehien jantzi duen futbolaria da Sandra Ramajorekin batera. Guztira sei aldiz aritu da Selektzioarekin.

Lizasok Reala uztea erabaki zuenean Aintzane Encinasek hartu zuen bere lekukoa talde txuri-urdineko kapitain gisa. Hegalako jokalaria azkarra da klub txuri-urdinak emakumezkoen taldea sortu zuenetik denboraldi guztiak jokatu dituen futbolari bakarra. Ia lauhun lehia jokatu ditu Realarekin. Euskal Selektzioarekin hiru aldiz aritu da eta kapitainaren besokoa etxean dauka gordeta. Hamahiru urte emakumezkoen futbola sustatzen aritu ostean beste bide bat hastea erabaki du. Maialen Zelaiak ere kapitainaren bide bere egitea erabaki du. Hamar urtez aritu da Realean. Lesio larri bat gainditu eta zelaietara bueltatzeko gai izan da. Bi aldiz aritu da Euskal Selektzioarekin. Zorionak eta eskerrik asko guztiei emakumezkoen futbola sustatzen laguntzeagatik!

EUSKAL FUTBOLA HAZTEN

Aipatu jokalarien ekarpena ezinbestekoa izan da euskal futbola hazten laguntzeko. Baita Athleticen, Realaren eta gainerako klub garrantzitsuen lana ere. Bada, Euskadiko Federazioa bidelagun ari da izaten urtetik urtera indar gehiago duen kirolaren zabalkundera. Selektzioa ezberdinekin egiten duen beharraz gain, Euskal Ligaren sorreran eta hazkundera izan duen garrantzia nabarmena izan da. Hamalau taldekin hasi zen txapelketak hamasei taldek osatzen dute egun. Bizi bizirik dago emakumezkoen futbola.

ZIERBENA KOPARAKO SAILKATU DEN BITARTEAN BILBOK ETA AFANTXOK HIRUGARREN MAILAKO ETA EUSKAL LIGAKO TITULUA BEREGANATU DITUZTE

Zierbenak hurrengo Koparako bere partaidetza bermatu zuen; aldiz, Bilbo eta Afantxo taldeek titulua eskuratzera eramán dituzten denboraldi bikaina garatu dute.



C. Zárate

Zierbena taldeak hurrengo Errege Koparako plaza bat lortzeko bere helburua lortu zuen, B Bigarren Mailako hirugarren postua eskuratzean. Horrela, Colo Colo kategoriako txapelkunak eta Pinsequé taldeak hurrengo kopako edizioan

bere kideak izango dira. Ildo honetatik jarraituz, azpimarratzea berderatzigarren postu txalogarria eskuratu zuen Ibarra taldearen kanpaina bikaina eta hamahirugarren postua betetzean iraunkortasuna lortzeko ahalegin guztia egin zuen Santurtzi taldearen txapelketako aparteko bigarren atala. Ukitu negatiboa Internacional eta Aurrera taldeen eskutik etorri zen, izan ere,

ez ziren gai izan kategoría zorrotz batean iraunkortasuna mantentzeko.

Bestalde, Hirugarren Mailan Bilbo taldearen kanpaina bikaina azpimarratu ahal da, 57 punturekin, bigarren postukoak baino lau gehiago, Ligako txapelketa aldarrikatu baitzen. Hala ere, ukitu negatiboa arrazoi ekonomikoaren eraginez gertatutako hurrengo denboraldirako bere desagertzea izan da. Era berean, areto futbolarren alderdirik mingotsena jasan zutenak San Jorge eta Lagun Onak taldeak izan ziren, arrasteagatik jaitsi zirelako.

Amaitzeko, Euskal Liga txapelketa oso parekatua gertatu zen, bere igoera plazak amaieran ebatziak izanik. Txapelkunaren titulua Afantxo taldearentzat izan zen 64 punturekin, jarraian Aretxabaleta sailkatuz 59rekin. Etxebarriko Kukuiagak lortu zuen podiuma 56 punturekin, azkeneko jardunaldian Erandiotarrak taldearekiko gailentzea lortuz kirol ikuskizun bikainen eskutik. Aitzitik, Elorrioko B taldeak kategoría galdu zuen azkeneko postuan geratuz, soilik 4 punturekin.

BIGARREN FEMENINOA

Denboraldi bikaina izenpetu izan arren, Bilbo play off txapelketatik bi puntura geratu zen, hirugarren postuan. Ordizia taularen erdian geratu zen, zortzigarren postuan, eta Stilo kategorian mantentzen da.

OHOREZKO JUBENILA

Ohorezko mailan, Lauburu Ibarra garaile aldarrikatu zen 60 punturekin, alegia Laskorain bigarrenaren puntu kopuru berdinarekin.

EUSKADIK DEBUTA EGIN DU HAURREN KATEGORIAKO ESTATUKO TXAPELKETA BATEAN

Euskadiko areto futboleko beheheragoko kategoriek aurrerapenak egiten jarraitzen dute Federazioak oinarria indartzeko asmoz emandako bultzadari esker. Horren adibide garbia da Cáceresen ospatutako estatuko Txapelketan Euskadik eginiko debuta. Txapelketa zen onuragarria izan euskal konbinatuarentzat, izan ere, laster kanporatua izan zen, baina bai teknikariek eta bai federazioko kideek esperientzia honen prestakuntza maila azpimarratu zuten. Gainera, Euskadi Joko Garbia-Esku Batua sariaren txapelketa aldarrikatu zen, bere fair play jokabideagatik.



IBARAKI FEMENINOA, IBARRA JUBENILA ETA ZIERBENA KADETEA EUSKAL KOPAKO GARAILE

Talde leioztarra garaile aldarrikatu zen kategoría femeninoan, aldiz talde gipuzkoarra nagusitu zen jubeniletan. Zierbenako harrobi bizkaitarrak bere maila erakutsi zuen kadetetan.

Carlos Zárate



Leioa Ibaraki femeninoak ametsetako denboraldi bat lizenpetu zuen, Euskadiko txapelketaren garaipenarekin Lauburu Ibarra (3-2) taldearen kontra neur-tzean. Leioztarrak nagusitu ziren

etxean bertan, saria etxera eramatea lortuz.

Bestalde, Lauburu Ibarra jubenila txapeldun aldarrikatu zen Gora Bilbao (6-4) taldearen aurrean. Estatu mailan kanporatua izan zen lehenen-

BIZKAIA IKUSGARRIA, GARAIPENEZ GAINEZKA

Bizkaiko selekzioak izan ziren aurtengo garaile bikainenak, hiru euskal lurraldetako konbinatuak elkarrekin neurtzera daramatzan txapelketan. Kategoría jubenilean Gipuzkoa eta Araba taldeekiko gailendu zen eta halaber nagusitu egin zen kadeteen eta emakumezkoen kategorietan. Hemen bere arerio bakarra talde gipuzkoarra izan zen, arabarrek talderik aurkeztu izan ez zuten.

go txandan El Pozo Murcia taldearen aurrean. Zierbena kadeteak euskal titulua eskuratu zuen Eskoriatza (2-4) taldeari irabaztean. Estatu mailako txapelketan ez zuen lortu alde zurreko fasea gainditzea.

Ibéricos deluxe

Delicatessen

**ESPECIALISTAS
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS
(BODAS, COMUNIONES...)**



Tienda situada en
San Sebastián (Donostia)
Calle NARRIKA nº 31 Parte Vieja
Telf.: 943 423 849

www.ibericosdeluxe.com

ANGEL MARIA VILLAR, BERRIRO ESPAINIAKO FUTBOL ERREGE FEDERAZIOKO PRESIDENTE IZATEKO HAUTATUA

Angel Maria Villar Espainiako Futbol Errege Federazioaren arduraduna izaten mantenduko da hurrengo lau urtetan, hauteskundeak erabakigarritasunez irabazi ondoren.



Ángel María Villar

David Novo

Ángel Maria Villar zortzigarren aldiz hautatua izan zen RFEF-ko presidentea izateko, joan den maiatzean. Igorritako 129etatik, 112 boto eskuratu zituen. Hautatutako euskal batzordekideak ondorengoak izan ziren:

1. Mailako Klubak: S.D Eibar, Deportivo Alavés SAD eta Athletic Kluba. **Lehen eta Bigarren Mailako futbolariak:** Oscar

De Marcos. **Entrenatzaile Ez Profesionalak:** Juan Carlos Marco. **Klub Ez Profesionalak:** Oiarzun K.E. eta Zamudio S.D. **Futbolari Ez Profesionalak:** Amaia Vazquez. **Areto Futboleko Klubak:** Zierbana C.D.F. **Lehen eta Bigarren Mailako Arbitroak:** Burgoseko Ricardo.

Beste autonomia erkidego batzuetako euskaldunak ere hautatu ziren.

HIRU EUSKAL BATZORDETAKO PRESIDENTEAK

Pedro Luis Arrizabalaga, Roberto Perez eta Patri Allende presidente izendatuak izan dira Futboleko eta Areto Futboleko Arbitroen eta Entrenatzaileen Euskadiko Batzordetan, hurrenez hurren.

Hirurek Luis Mari Elustondoren konfiantzarekin kontaktzen dute Euskadiko Futbol Federazioko hiru organo tekniko horiek zuzentzen jarraitzeko orduan.

SARREREN BEZ ORDAINTZEAREN KONTRA

Denboraldi honetan 2. B Mailako kideak izan diren talde bizkaitarretako ordezkariak euren kezka azaldu dute Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun sailak erakutsi duen asmoaren aurrean, euren ordaintzen edo sarrereren BEZ ordaindu arazteko asmoari dagokionez.



Autocares

Bº Arregui - Polígono Cóndor - Edificio C - 48340 AMOREBIETA

Teléfono.: (+34) 946308250 - Fax: (+34) 946308510

gocotour@gocotour.com - www.gocotour.com

- Viajes NACIONALES / INTERNACIONALES
- Todo tipo de SERVICIO en AUTOBÚS
- Transporte: ESCOLAR, BODAS, CELEBRACIONES, CONGRESOS, , Etc.
- Vehículos de: 7, 18, 22, 27, 35, 38, 40, 55, 59, 71 Plazas
- Vehículos ADAPTADOS para P.M.R. (Personas Movilidad Reducida)
- Servicio Privado TAXI: Bodas, Lujo y 24 horas

EUROPA ASIA AMÉRICA OCEANÍA CRUCEROS

Las VUELTAS DAN MUCHA VIDA

Hasta
14%
DESCUENTO

Mejor
PRECIO
garantizado

Financiación*
10 meses

Consulta condiciones de aplicación de estas promociones en nuestras oficinas. *Financiación 10 meses consulta condiciones de financiación ofrecida sujeta a estudio y aprobación por parte de Santander Consumer Finance S.A.

CLC/MA 2468/Mm
200 oficinas
902 811 811
nautaliaviajes.com



NAUTALIA
Viajes

ARABA-ÁLAVA | Vitoria-Gasteiz | Zaramaga, 1. C. Cial. Boulevard. [945 10 30 97] | BIZKAIA | Bilbao | Gran Vía D. Diego López de Haro, 75 (Metro: San Mamés/Indautxu). [946 42 43 48] | Pza. San Francisco Javier, 1 (Metro: Indautxu). [946 40 40 28] • Pza Santiago, 3. [946 41 40 10] | Basauri | Pedro Bilbao, 2 (esq. Nagusia, 1). [946 41 45 08] | Deusto | Luis Power, 28. [946 43 80 03] | Galdakao | Juan Bautista Uriarte, 31 bajo. [946 41 64 05] | LAS ARENAS-GETXO | Mayor, 4. [946 42 46 82] | GIPUZKOA | Donostia-San Sebastián | Urbieto, 47. [943 10 49 24] | Eibar | San Agustín, 5. [943 10 89 60] | Irún | Plaza J.R. Agirretxe, 3 (fuente Luis Mariano). [943 10 43 42] | Rentería | Av. Navarra, 63. [943 10 43 44] | Urretxu | Labeaga, 41. [943 10 98 78]



CON SURNE TIENES UN SUPERSEGURO DE VIDA

Surne, la compañía con la mejor atención y servicio, reconocidos por la mayoría de corredores del país*, te ofrece el más completo seguro de vida con múltiples servicios y a un precio imbatible.



PRECIO Y COBERTURAS

Todas las coberturas con un precio imbatible.



PLATAFORMA MOOVE

App para medición de datos biométricos.



TESTAMENTO ONLINE

Un servicio adicional que nos diferencia.

cmb

bizkaiko medikuen elkargoa
colegio de médicos de bizkaia

SEGURMEC
ASEGURU-ARTEKARITZA S.M.
CORREDURÍA DE SEGUROS S.L.